

IDATZIZKO HIZKUNTZAREN



NAHASTEAK

Sarrera:

IHN gure kulturarekin (moderna eta postmoderna) lotuta datorren nahaste bat da, gure kulturaren transmisioa irakurketa eta idazketaren bitartez ematen baita. Aipatutako bi trebetasun horiek modu egokian garatzeak ala ez, ondorio garrantzitsuak izaten ditu pertsonaren hezkuntza prozesuan.

Idatzi eta irakurtzerakoan gure garunean kodifikazio-dekodifikazio eta abstrakzio prozesu bat burutzen da, eta prozesu honek zeinu grafikoen pertzepzio zuzena eskatzen du.

Hainbat umerengan arlo hauetan arazoak agertzearen eragina irakurketa-idazketan islatzen da, ikaste prozesua motelagoa eta zailagoa bihurtzen delarik. Kasu hauetan IHNei buruz hitz egiten dugu. Oso muturreko kasuetan, hau da, arazo eta zailtasunak oso handiak direnean DISLEXIARI buruz hitz egiten dugu.

Definizioa:

Irakurri eta idazteko prozesua bereganatzeko eta praktikan jartzeko zailtasunak izatea, arazo kognitiboak (inteligentzia normala da) eta bestelako arazoak (lesio fisikoak, arazo

sentsorialak, afektiboak,...) ez dituen haur batean ematea.

Zailtasun horiek honako zereginetan islatzen dira: hizkiak edo hizki multzoak bereizteko, orden eta erritmoa mantentzeko, hizkiak ondo kokatzeko, esaldien egituratzeko, hiztegia bereganatzeko eta erabiltzeko...

Etiologia:

Gai honen inguruan hainbat teoria eta mito daude. IHNen kausa oraindik ez dago guztiz zehaztuta eta aditu bakoitzak bere iritzia du, askotan bata besteari kontrajarrita nolabait Etiologiaren teoriak, bi eragile multzoren arabera banatzen dira:

1.- Nahaste hauen eragilea **ikaslearen menpe** dago, alderdi pertsonala da beraz:

1.1.-Teoria biologikoa: Eragilea biologiko, konstituzionala eta bere egitura neurologikoetan bilatzen du. Honen barruan bi azpi teoria daudela esan behar dugu:

1.1.a.-T.Genetikoa: Arazoa genetikoa, hereditarioa da, eta gizonetan ematen dena bereziki.

1.1.b.-T.Organikoa: Arazoa garunean dagoela diote, bi hipotesi erabiltzen dira honetarako; batetik garun azala minduta dagoela diotenak eta bestetik desoreka kimikoen bidez ematen dela diotenak.

2. Teoria neuropsikologikoa: Gaur egun indar gehien duen teoria da hau Gakoa garunaren funtzionamenduari egongo litzateke lotuta, lengoaiaren zonaldearekin, konkretuki. Ezkerreko hemisferioak ez du eskuineko hemisferioa dominatzen, ondorioz ezker eta eskuineko imajinen/pertzepzioen arteko lehia ematen da. Hori dela eta nahastea.

2.-Testuingurua da nahaste hauen kausa. Alderdi sozio-pedagogikoak garrantzia hartzen du hemen.

2.1.- Teoria ekologikoa edo soziala (Vigotsky): Nahastea haurrak jasotako estimulazio psikolinguistikoarekin erlazionatzen dute. Estimulazioa pobrea edo desegokia bada, nahasteak agertuko dira.

2.2.-Teoria pedagogikoa: Kasu honetan eragilea erabilitako irakurketa eta idazketa metodoen desegokitasunean aurkitzen da. Batzuentzat irakaskuntza goiztiarraren ondorioz etor daiteke arazoa ; beste batzuen iritziz irakurketa metodo globala erabiltzeagatik.....

****Ikuspuntu eraikitzaileak 2.1 puntuko teoriarekin egiten du bat:** Ikuspegi honek dioenez dislexia soilik jatorria biologikoa denean diagnostikatzen da, eta hau gela berezian landuko da (esan behar da jatorri biologiko hori topatzea oso zaila dela). IHNak idazketa-irakurketa prozesuan eman daitekeen zailtasun bat bezala ikusten dira, pronostikoa positiboagoa delarik. Kasu hauetan eman behar den prozesu egokia lortzeko, umeari ematen diogun estimulazio psikolinguistikoa giltzarria da.

Ezaugarriak:

Ume hauek bere adimen mailari dagokien idatzizko hizkuntzaren erabilpen eta ikaskuntzaren zailtasun nabariak azaltzen dituzte. Bi eremu bereiztuko ditugu: 1.- Pertsona mailakoa, eta 2.- Eskola eremua.

1. Pertsonari dagokiona:

***Atentzio falta:** Bere zailtasun pertzeptiboak gainditzeko egin behar duen esfortzu intelektuala dela eta askotan nekatuta agertzen da. Horregatik askotan idazten eta irakurtzen ikasi behar duenean aspergarria eta desmotibagarria iruditzen zaio.

***Ikasketengatik interes urria agertzea:** Atentzio faltak eragiten du haurraren ikasketak desmotibagarriak izatea, honen ondorioa eskolan nota txarrak ateratzea da. Askotan bere nota txarren ondorioz baztertuak sentitzen dira beraien klasearen barruan, askotan haur atzeratuak bezala ikusten dira.

Bestalde askotan beraien familiaren barruan haurra atzerapen ebolutibo bat duela pentsatzen dute edo bestela kasu askotan ematen da familiak haur hauek alperrak direla pentsatzea. Guzti hau haurrarentzako frustrantea da, eta oso arrunta izaten da etxeko lanekiko eta eskolaren gaiekik ukapena .

***Egokitzeko zailtasunak:**

Askotan eta aurretik aipatutakoaren ondorioz haur hauek emozionalki ez dute oreka egokia mantentzen. Espazioan eta denboran ere modu egokian orientatzen ez denez, erreferentzia punturik gabe aurkitzen da, ondorioz inseguritate handia azalduz. Askotan bere buruan konfiantza handia duenaren imajina ematen du eta bere iritziak gogor defenditzen ditu, baina hau bere gabeziak ezkutatzeko mozorro bat besterik ez da izaten.

2. Eskolari dagokionean:

:

***Irakurri zein idazterakoan:**

-Simetriazko hizkien arteko nahasteak (b-d/p-q/w-m)

-Antzeko soinua duten hizkien arteko nahasteak (p-b/d-t/l-l-ñ)

-Hizkien inbertsioak (ez-ze/sol-los)

-Omisioak (giltza-gitza)

- Gehitzeak (tres-teres)
- Hizkien arteko aldaketak (sagua-sadua)
- Silaben ordenaren aldaketak (lananala)
- Hitzen elkar banaketan akatsak (etorri zen-eto rrizen)

*Idazterakoan:

- Hizkien grafia egiteko zailtasunak.
- Ispilu idazkera.
- Ortografiazko akatsak.
- Idazlanetan akats gramatikalak.

*Irakurtzerakoan:

- Irakurketa silabikoa.
- Zailtasun handia agertzen du hitz luze zein ezezagunekin.
- Abiadura eta erritmo falta.

*Bestelakoak:

- Askotan esanahi berdina ala kontrakoa duten hitzak nahastuko ditu.
- Historia, geografia eta baita geometria ulertzeko zailtasunak izango ditu.

Diagnostikoa:

IHN-ak ematen ari direla esateko aipatutako ezaugarriak agertu behar dira, beti ere ir-id.irakaskuntza prozesua aurreratuta dagoenean (beraz, inoiz ez 7 urte baino lehenago).

DISLEXIAri buruz hasiko gara hitz egiten, honako baldintza hauek betetzen direnean:

1.-Adina: 8-9 urtetik aurrera, beti ere prozesu pedagogikoa eta bir- hezitzailea martxan jarri bada.

2.-Ezaugarri eta akats hauen maiztasuna: Aipatutako akatsak maiztasun handiarekin ematen dira (ia denak eta egoera desberdinetan)

3.-Umearen historiala: Gurasoekin elkarriketan jasotzen dira datu esanguratsuak, umeak azaltzen duen arazoaren eragile posible gisa: anoxia, garun infekzioaren bat, haurdunaldiaren arazoaren bat...



Eskuartzea. Irakasleentzat orientabideak:

Eskolak garrantzi handia izango du holako arazoaren prebentzioan, batez ere lehenengo urteetan metodologia egokiak eta esanguratsuak (ikuspegi eraikitzailea) erabiltzean

Egokiena izango litzateke 4-5 urterekin irakurketa apendizaiari hasi baino lehen, honekin erlazionaturiko zenbait ariketa egiten hastea (ariketa hauek gaur egun oso integratuta daude Haur Hezkuntzan, zorionez), geroago prozesu honetan arazo gutxiago azaltzeko.

Behin haurraren diagnostikoa egin eta gero; bere hutsune eta gaitasunak zeintzuk diren identifikatu beharko ditugu.

Oso garrantzitsua izango da bere arazoa zein den dakigula haurrak antzematea, eta emozionalki gu gertu sentitzea..

Zuzenketak egin beharko dira baina konturatu behar gara garrantzitsuena ez dela gauza bat behin eta berriro errepikatzea Bere ongizatea eta integrazioa erraztu beharko dugu eta ez zuzenketa jarraituekin nolabaiteko baztertzeara.

Arazoen larritasunaren arabera tratamendu bat jarraitzea garrantzitsua izango da, zenbaitetan klase berezietan (laguntza gela) lan egin beharko du eta baita eskolatik kanpoko orduetan arazoa oso larria baldin bada

. Idazketa eta irakurketarekin estuago erlazionaturik dauden ariketak dira ume hauentzako gomendagarrienak **Baina inoiz ez duguna ahaztu behar da ariketa hauek umearen bizitzarako baliagarria izan daitekeen zerbaitekin lotuta egon behar direla: idatzizko hizkuntzaren**

funtzionalitatea ulertzea da gure helburua.

Ariketak, hauexek izan daitezke:

*Ariketa pertzeptiboak: Adib. 1.- idatzizko estimulu antzekoen artean bereizketak, 2.- Hauekin batera ariketa espaziala, tenporalak eta erritmo ariketak egin beharko ditugu.

*Lengoaia estimulatzeako ariketak: Ariketa hauek helburu bezala umearen maila psikolingüistikoa handitzea izango dute: Ahoskera, hiztegia handitzea, erritmo egokia hartzea, esaldi zuzenak egiten hastea.....

Honetarako ariketa hauek erabili daitezke: Adib. 1. Hizkuntza jariotasuna estimulatu./ 2. Gauza zehatzen deskripzioak egitea (hiztegia barneratzen lagunduko diegu poliki-poliki)/ 3. Antonimoak eta sinonimoak erabiltzeko ariketak./ 4. Hitz egiterakoan azkartasuna bilatu: gelako gauzak izendatu, bururatzen zaizkion izenak esan.../ 5. Esaldiak eraikitzea.

*Irakurketa ariketak: Irakurketa lantzerakoan ez dugu oinarritu behar soilik silaben identifikazioan, hau oso ondo dago baina irakurketa ulergarriak ere bultzatu behar ditugu. Ariketa posibleak: aurkako silaben (silabas inversas) irakurketa eta identifikazioa, silaba konposatuen irakurketa eta identifikazioa, paragrafo bat altu irakurtzea eta ondoren esplikatzeko, isiltasunean irakurri, idatzirik dauden aginduak betearaztea...

*Idazketa ariketak: idazketa, irakurketa eta lengoaia elkarrekin eta bide berdinetik landu behar dira

Ariketa posibleak: Esaldiak osatzea, hitzak eta esaldiak ordenatzea, hitzen banaketa egitea (Adib:librogomalapiz / libro-gomalapiz).

Komeni da hasiera batean ariketak manipulaboki (plastikozko letrak, hitzen karteltxoak) egitea, idazketarekin erlazionatzen joan dadin. Poliki-poliki kopiak, diktaketak egiten hasiko gara.

Gurasoentzat orientabideak:

Familiak emozionalki laguntza eman beharko dio umeari, zenbaitetan ondo etorriko da batez ere umea burumakur dagoenean bere arazoaren inguruan hitz egitea familiarekin. Hau bere euskarri nagusia izan behar du ,beraz familiak ez du tontotzat edo alpertzat hartu behar, baizik eta prozesu neketsu baten barruan dagoen haurra bezalako non beraien konfiantzarekin haurrak lasaitasuna eta aurrerapenak lortuko dituen.

Nota eta emaitza txarren aurrean ez da umea presionatu behar, prozesu zaila eta neketsua dela ulertu behar dute denok: bai gurasoek eta baita haurrak ere.

Profesionalekin kontaktua eta informazioaren trukatzeko oso garrantzitsua izango da.

Bibliografia.

- BRYANT,P./BRADLEY,L. (1998) *Problemas infantiles de lectura* Madrid Ed. Alianza
- ESCAT. J. (1999) *La dislexia: Un enfoque rehabilitador de la lectoescritura* Barcelona. Isep.
- MOLINA,S. (1983) *La dislexia, revisión crítica* Madrid Cepe
- VALLES, A.(1996) *Guía de actividades de recuperación y apoyo educativo.* Madrid Escuela Española

Internet:

- www.dislexia.com
- <http://web.jet.es/pilisanjose/dislexia.htm>
- www.terra.es/personal4/dislecii/disl_d1.htm